

Erdialdea

Artisauak heldu dira

Heldu da artisauen azoka. Urtarrilaren 6ra arte, Lur kolektiboko kideen lanak ikusi eta erosteko aukera izango da Urdaneta kalean jarritako XXVIII. Eskulangintza Azokan.

Goizez zein arratsaldez bisita daiteke azoka, 10.30etatik 14.00etara eta 16.30etatik 21.00etara, eta ez da hotzaren beldur egon beharrik, izan ere, Lur kolektiboko kideek, aurreko

urteetan bezala, berogailua jarri dute.

Mota guztietako artisautza lanak bildu dira Urdaneta kaleko estalkian: keramika potokak, larruz eginiko poltsak, zilar bitxiak, egur tailak, argizariak... Zalantzarik gabe, datozen asteetan makina bat donostiar hurbilduko da Urdaneta kalea gabonetako erosteketak egitera. Eskulangintza Azoka errotuta dago gure artean, bi urte barru 30. urtemuga beteko baitu.

Bi urte barru azokak 30. urtemuga beteko du



Azoka urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik.

Bidebieta

Gabonak ate joka

Bidebietako elkarte eta ikastetxe guztiak elkarlanean aritu dira Olentzero eta Mari Domingiren konpartsa antolatzeke. Asteburuan, hainbat ekitaldi antolatu dira.

Hilaren 22an 12.00etan Eriz magoak emanaldia eskainiko du Bidebieta institutuan. Arratsaldean, berriaz, 16.30etan Olentzeroren konpartsa entseuak egingo dira Haur Txokoan. Hurrengo egunean 17.00etatik aurrera kale animazio saioa izango da Bidebietako kaleetan eta 18.30etan, gaztain jatea egingo da eskola publikoan. Azkenik, hilaren 24an, 16.30etatik



Hilaren 22an Eriz magoak emanaldia eskainiko du

aurrera buruhandiak ibiliko dira auzoko kaleetan barrena. Ordu bete beranduago Olentzero eta Mari Domingi irten-go dira Guardaplata bidetik eta auzoraino gerturatuko dira haurrak agurtzera.

J. Estalayo

SALMENTA ONDORENGO LAGUNTZA TEKNIKO ZERBITZUA

Etxez etxeko zerbitzua mikroonda labeetarako

MOULINEX	MAGEFESA	FISSLER
KRUPS	HAMILTON	DUROMATIC
SOLAC	FOGACCI	ALZA
UFESA	FIRST LINE	PRONTO
ROWENTA	OSTER	JATA
TEFAL	KENWOOD	PALSON
TAURUS	MONIX	SAECO
	WMF	

Erregezainen kalea, 10 Tel: 943-310986
Urdaneta 16-18 Tel: 943-467527- 20006 Donostia

Matia, 44 • Tel.: 943 31 06 41

LOREDENDA
HUNTZ